

KANPO-MERKATARITZAREN ESTATISTIKAK (KAMEE), 2005EKO 4. HIRUHILEKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioak %9,6 gehitu ziren 2005eko azken hiruhilekoan

Inportazioek %9,7ko urte arteko gehikuntza izan zuten hiruhileko berean

EUSTATEk emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko **esportazioek** %9,6ko hazkunde nominala izan zuten 2005eko laugarren hiruhilekoan. Esportazioak, bada, 2005eko azken hiruhilekoan 3.832,5 milioi eurokoak izan ziren eta 2004ko azken hiru hilabeteetan 3.496,5 milioi eurokoak; hau da, urtetik urtera 336 milioi euro gehitu dira esportazioak.

Inportazioak 3.789,2 milioi eurokoak izan ziren, urtetik urtera %9,7 hazi baitziren; baina **inportazio ez-energetikoen** balioa %3,2 gutxitu zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2004-2005eko laugarren hiruhilekoa. Mila eurotan.

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urria-abendua		Δ %	Urria-abendua		Δ %
	2004	2005		2004	2005	
EUSKAL AE						
GUZTIRA	3.496.543	3.832.512	9,6	3.454.613	3.789.275	9,7
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	176.894	314.018	77,5	788.108	1.209.084	53,4
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	3.319.650	3.518.494	6,0	2.666.504	2.580.190	-3,2
ARABA						
GUZTIRA	1.005.967	1.051.045	4,5	648.143	649.471	0,2
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	1.114	1.662	49,2	8.711	14.301	64,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.004.853	1.049.383	4,4	639.432	635.171	-0,7
BIZKAIA						
GUZTIRA	1.268.037	1.458.161	15,0	1.981.875	2.293.129	15,7
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	170.776	307.207	79,9	768.040	1.183.469	54,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.097.260	1.150.954	4,9	1.213.835	1.109.660	-8,6
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.222.540	1.323.305	8,2	824.595	846.674	2,7
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	5.003	5.149	2,9	11.357	11.315	-0,4
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.217.537	1.318.157	8,3	813.238	835.360	2,7

Iturria: Eustat

Merkataritza-saldoa (esportazioak ken inportazioak) pixka bat hobetu da; urtebete lehenago 41,9 milioikoa bazen iazko laugarren hiruhilekoan 43,2 milioi eurokoa izan zen. Alabaina, esportazioek inportazioekiko izan zuten estaldura-tasa hamarren bat txikiagoa izan zen: 2004ko azken hiruhilekoan %101,2koa izan zen eta 2005eko aldi berean %101,1ekoa.

Merkataritza-saldo ez-energetikoa 938,3 milioi eurokoa izan zen (3.518,5 milioi esportazio ez-energetiko ken 2.580,2 milioi inportazio ez-energetiko); aurreko urtean saldo hori 653,1 milioi eurokoa izan zen. Salerosketa horien estaldura-tasa, bada, %124,5ekoa izan zen 2004an eta %136,4koa aurreko urteko laugarren hiruhilekoan.

Europar Batasunerako esportazioek urtetik urtera %3,1eko aldaketa positiboa izan zuten; hain zuzen ere, Frantziarako (%1,9), Italiarako (%33,0), Portugalerako (%2,3) eta Belgikarako (%18,5) esportazioak gehitu egin ziren baina Alemaniarakoak (%-13,7) eta Erresuma Baturakoak (%-25,2), bereziki, murriztu egin ziren. AEBetarako esportazioak %39,6 gehitu ziren.

Europar Batasunetik etorritako inportazioen balioa, bestalde, %0,6 murriztu zen batez ere Herbehereetatik (%-20,6) eta neurri txikiagoan Frantziatik (%-1,6) etorritakoak. Alemaniatik etorritako inportazioak %3,6 gehitu ziren.

Europar Batasunarekiko merkataritza-saldoa hobetu egin da: 2004an 497,9 milioi eurokoa izan zen eta 2005eko azken hiruhilekoan 585,2 milioi eurokoa. Esportazioek merkataritza-arlo horretako inportazioen aldean izan zuten estaldura %125,1etik %129,7raino igo zen. AEBekiko merkataritza-saldoa eta estaldura-tasa ere nabarmen hobetu ziren urte horretako laugarren hiruhilekoan.

Muga-zergak dituzten bi talde handienek, *ekipamenduko ondasunak* eta *metalak eta manufakturak*, hiruhilekoko esportazioen gehikuntzan lagundu zuten; lehenengo taldeko esportazioak %5,7 gehitu ziren eta bigarrenenak %6,3.

Produktu energetikoen inportazioak %53,4 gehitu ziren, *metalenak eta manufakturenak* %15,6 gutxitu ziren eta *ekipamenduko ondasunen* urte arteko profilak %2,5 egin zuen gora.

Lurraldeka, esportazioek **Bizkaian** izan zuten hazkunderik handiena (%15,0), produktu energetikoen (%80,0) eta metalen eta manufakturen (%9,7) laguntzari esker. Laugarren hiruhileko horretan **Gipuzkoako** esportazioak %8,2 gehitu ziren. **Arabako** esportazioek, bestalde, hiruhilekoan hazkunde neurrizkoagoa izan zuten (%4,5); metalen eta manufakturen salmentak (%15,9) izan ziren nagusi.


2005. urteko balantzea

2005. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioak %5,2 gehitu ziren.

2005. urte osoan, Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioak 14.225,3 milioi eurokoak izan ziren, hau da, aurreko urtean baino %5,2 gehiago. Inportazio guztiak %16,2 hazi ziren urteko aldi horretan; esportazio ez-energetikoak %5,0 gehitu ziren eta inportazio ez-energetikoak %5,2.

2005. urtean, bada, esportazioek Gipuzkoan izan zuten hazkunderik handiena (%12,7ko urteko aldaketa positiboarekin); bilakaera hori, alabaina, askoz neurrizkoagoa izan zen Bizkaian (%1,4) eta Araban (%1,8).

Euskal Autonomia Erkidegoko kanpo-merkataritza. (Joera)



Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel:+34-945-01 75 13 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp